

IKASLE ETORKINENTZAT
HARRERA-PLANA EGITEKO
ORIENTABIDEAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

ORTEGA, Ima

Ikasle etorkinentzat harrera plana egiteko orientabideak / [egileak, Ima Ortega, M^a Jose Eguzkiza, Marta Ruiz de Garibay]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004 or. ; cm.

Badu, gainera, atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: “Orientaciones para la elaboración del plan de acogida del alumnado inmigrante”

ISBN 84-457-2123-2

1. Etorकिनен seme-alabak-Eskolaratzea-Euskadi. I. Eguzkiza, M^a Jose. II. Ruiz de Garibay, Marta. III. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. IV. Izenburua. V. Izenburua (gaztelania).

376.684.043.2(460.15)

Egileak: Ima Ortega, M^a José Eguzkiza eta Marta Ruiz de Garibay

Argitaraldia: 1.^a 2004eko maiatzean

Ale-kopurura: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Imprimaketa: Gráficas Varona, S.A.

ISBN: 84-457-2123-2

Lege-gordailua: S. 677-2004

SARRERA

AURKEZPENA	5
SARRERA	7
1. ZER DA HARRERA PLANA?	9
2. HASIERAKO GOGOETAK	11
2.1. Familiaren ingurukoak	12
2.2. Ikasleen ingurukoak	13
2.3. Irakasleen ingurukoak	13
2.4. Zentroko antolaketaren ingurukoak	14
3. ZUZENDARITZA TALDEAREN JARDUERAREN INGURUKO ORIENTABIDEAK	15
3.1. Familiekin izan beharreko hasierako kontaktua	15
3.2. Hasierako elkarrizketa	16
3.3. Ikasturtean izena emateko irizpideak	17
3.4. Orientabideak eta aholkularitza	18
3.5. Informazioaren tratamendua	18
3.6. Beste gizarte-zerbitzuekin harremanak	19
4. IRAKASLE TALDEAREN ETA ZIKLOKO IRAKASLEEN JARDUEREN INGURUKO ORIENTABIDEAK	21
4.1. Orientabideak	21
4.2. Estrategiak	21
4.3. Jarduera zehatzak	22
5. IRAKASLE TUTOREEN GARRANTZIARI ETA GELAREN HARRERARI BURUZKO ORIENTABIDEAK	25
5.1. Gelaren harrera	25
6. HASIERAKO BALIOESTEA ETA BANAKAKO INTERBENTZIO PLANA	31
6.1. Hasierako balioestea	31
6.2. Etengabeko ebaluazioa	34
6.3. Banakako interbentzio-plana	35
7. IKASLE HELDUAK HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORREAN	37
7.1. Sarrera	37
7.2. Harrera-plana	38

8. HARRERA-PLANAREN LABURPEN KOADROA	41
9. BIBLIOGRAFIA	43
10. ERANSKINAK	45
1. ZER DA HEZKUNTZAINTERKUTURALA?	47
2. EGOKITZE PROZESUAREN FASEAK	49
3. IKASLE ENBAXADOREAK (LAGUN BERRIAK)	55
4. HASIERAKO BALIOESTEA EGITEKO ADIERAZLEAK	57
5. IKASLEAREN OINARRIZKO INFORMAZIOA	60
6. HHIEKO IKASLEAK	61
7. IKASLEAREN BANAKAKO PLANA	62
8. NORBANAKAKO PLANEAREN EBALVAZIOA	64
9. TUTOREAREN JARDUERAK	65

AURKEZPENA

Beste lurralde askotan bezala, Euskadin ere gero eta anitzagoa eta pluralagoa da gizartea. Aniztasun honen ispilu izanik, Euskal Eskolak kultura arteko hezkuntzaren alde dihardu lanean, euskal kulturaren eta euskaran oinarrituz eta beste kulturak eta hizkuntzak geureganatuz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean argi daukagu aniztasunaren alde jokatuz Euskadin egun bizi garen guzti-guztion alde ari garela lanean. Aniztasunean hezteak aberastu egiten gaitu, kultura arteko ikuspegiarekin ikusten dugulako etorkizuna.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez, Eusko Jaurlaritzak kalitatearen, berrikuntzaren eta ikaskuntza iraunkorraren aldeko apustua egin du. Horretarako, zuzentasunean, elkartasunean, kulturarte elkarriketan, komunikazioan eta elkarri etengabe entzuteko gaitasunean oinarritzen da. Kultura bakoitzak izugarritzko aberastasunak ditu, eta horiek, baliokideak izateaz gain, desberdinak ere badira. Kultura arteko elkarriketak eskaintzen duen gauzarik ederrena hau da: guztiok gauza berdinak ditugula ulertzeaz gain, elkarren arteko desberdintasunak liluragarriak direla ere ulertuko dugula, hain zuzen.

Gure seme-alabak euren burua eta besteak errespetatzeko gai izan daitezten hezi behar ditugu, gure kultura eta hizkuntzarekiko nahiz beste kulturak eta hizkuntzekiko errespetuan. Etorkinak, nahi duten heinean, gure artean bizitzen geratzea lortu behar dugu, gurekin elkar bizi daitezten, gure kultura eta hizkuntza ezagutuz eta maitatuz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratutako ikasle etorkinentzako arreta-programak dioen arabera, material didaktikoak egiteko orientazioak eta gomendioak emango dira, hizkuntza ez-arrazista eta ez-baztertzailerak erabiltzeko xedearekin. Esku artean daukazuen material hau horretarako da eta ikastetxetan etorkinentzako harrera-planak egiterakoan eredu eta lagun-garri izan nahi du.

Anjeles Iztueta Azkue

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

SARRERA

Beste herrialde batzuetatik datorren ikasle-kopuruak gora egin du nabarmen, azkenaldian, EAEn. Eta horrek errealitate berri horretara egokitzeko aldaketa batzuk egitera bultzatu ditu ikastetxeak.

Jakin badakigu gizarte berrian integratzeko ahalegina ez dela etorri berrien ardua bakarrik, baizik eta gizarteak berak ere egin behar duela ahalegina, herritar berri horiek sortzen dituzten egoeretara moldatzeko. Horrexegatik, nahitaezkoa da harrera-gizarteak (kanpotik datozenak jasotzen dituen gizarteak, alegia), bere deitura horrek adierazten duena aintzat hartuz, iritsi berriak ahalik eta ondoen hartzea.

Ikastetxeek argi izan behar dute berak direla etorkin-familiek izango duten elementu integratzaile oinarritzkoena eta, errealitate berri batera iristea arazo eta trabaz betetako bidea dela jakinik, eskolak berak lagundu egin behar duela egoera berrira egokitzeko estrategia eta neurriak diseinatzen.

Horretarako, ikastetxe guztiek harrera-plan bat egin beharko dute, eta bertan jasoko dituzte harreraren inguruan hartu beharreko erabakiak, honako puntu hauek kontuan hartuz:

- nork eta nola egingo dion familia berriari harrera
- zer informazio emango zaion
- nork eta nola aditzera emango dion iritsi berriari ikastetxearen funtzionamendua

Hala ere, hori ez da nahikoa. Gogoeta egin beharko da beste hainbat gorabeherari buruz ere, hala nola beste kulturetako elementuak geure curriculumean sartu beharraz, Erkidegoko hizkuntzen erabileraz, hurbileko hizkuntzen garrantziaz, eta abar.

lkerketa-eremu guztietan aipatzen da harrera horrek duen garrantzia: guztiz erabakigarria izaten da askotan, ikasleen etorkizuneko arrakasta edo porrota baldintzatzeko.

Idazki honen asmoa ikastetxeei harrera-plana egiten laguntzea da. Eredu orokor bat ematea du helburu, gero, ikastetxe bakoitzak bere dokumentuan gauzatzeko. Geure hezkuntza-sistemara datorren guztiari harrera ona egitea nahitaezkoa dela uste dugu, edozein hezkuntza-mailatan sartzen dela ere: Haur Hezkuntzan, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean, eta abar.

Hala ere, gurea bezalako dokumentu orokor batean, zaila da hezkuntza-ren maila guztietarako proposamenak eta jarduerak biltzea. Horregatik, ikastetxe bakoitzari bere irakurketa propioa egin dezala eskatzen diogu, eta bere egoerara molda dezala.

Bukatzeko, argi esan behar da proposamen honek izaera orientatzailea duela soilik, inolaz ere ez arautzailea, eta ikastetxe bakoitzak duela bere beharrietara egokitzeko ardura. Horretarako, gogoetan lagun dezaketen hainbat eranskin eta inprimaki gehitu ditugu, besteak beste, hasierako balioestea egiteko, banakako interbentzio-plana osatzeko, eta abar. Helburua irakasleei lan-tresna bat ematea izan da, premien arabera molda edo alda daitekeena.

Idazki hau egiterakoan, zenbait Autonomia Erkidegok osatutako planak kontuan izan ditugu, baita ikasle etorkinak jasotzen esperientzia duten Berritzegune edo ikastetxe batzuetakoak ere.

Azken batean, gure helburua lan-tresna erabilgarri bat eskaintzea izan da, jakinik, ikastetxe bakoitzak, gero, Harrera-plana egiterakoan, hobetu eta aberastu egingo duela, ikastetxe bakoitzak egoera espezifiko bakoitzari bere esperientzia gehitzen dion heinean.

1 ZER DA HARRERA-PLANA?

Ikasle berriak ikastetxera egokitzen laguntzeko helburua duen jarduera-protokoloa da Harrera-plana. Aipatzen diren orientabideak, beste herrialde batzuetatik datozen eta/edo EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten, eta eskolara egokitu eta hizkuntza ikasteko prozesua jarraitu behar duten ikasleei buruzkoak dira.

Harrera-plana hezkuntza-maila guztietan aplikatu behar da, baita nahi-taezkoak ez direnetan ere.

NON KOKATZEN DA?

- A. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan; izan ere, proiektu horretan definitzen ditu hezkuntza-komunitateak interkulturalitatearekin¹ zerikusia duten konpromisoak (bai linguistiko eta kurrikularrak, bai sozial eta jarrerakoak), bai eta kultura bateko edo besteko ikasleek ikastetxean duten presentzia ere.
- B. Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan, non:
 - Curriculumari erreferentzia multikulturalak gehitu behar zaizkion, batik bat, ikaslearen jatorriko kulturakoak.
 - Ikastetxera etortzen diren kanpoko ikasleen premia linguistiko eta kurrikularrak bermatzeko estrategiak jaso behar diren.
 - Banakako interbentzio-planaren oinarriko ereduak adostu behar den.
- C. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan, non hasierako irizpideak berrikusi behar diren, ikasle berrien etorrerak eragiten dituen aldaketak txertatzeko eta haien ikasketa-prozesua eta integrazioa errazteko.
- D. Bigarren Hezkuntzako Tutoreen Jarduera Planean, non jarduera konkretuak zehaztu behar diren, hau da, ikasle guztien integrazioa errazteko eta irakasleekiko harremanak bideratzeko gelan egingo diren jarduerak.

¹ Ikus 1. eranskinean "Zer da hezkuntza interkulturala?".

ZEINI DAGOKIO PLAN HORI EGITEA?

Koordinazio Pedagogikoko Batzordeari dagokio Harrera-plana egitea, edo haren azpibatzerde bati. Bertan, koordinazio-organoen bidez (zikloka, sailka...) irakasle-taldearen parte-hartzea bermatu behar da, elkarreragin kulturak dakartzan aldaketak erabaki eta onar daitezen.

Klaustroak eta OOGak onartu behar dute plana. Hezkuntza-komunitateko kide guztiei jakinarazi behar zaie, estamentu bakoitzak bere gain har ditzan planak ezartzen dizkion egitekoa eta planean ageri diren jardunbideak.

Ikasle etorkinen integrazio osoa lortzeko, ikastetxeak proposatzen dituen hezkuntza-jarduerak antolatzea da Harrera-planaren helburua.

Integrazioa zera da: "ikasleari bere garapen pertsonala, kulturala eta soziala lortzeko eremua eskaintzea, ikastetxeko bizitzan parte hartzeko aukera emanez, horrekin epe ertainera, harrera-gizartean integrazio soziala eta laborala lortzeko"²

Gogora dezagun kulturen arteko elkarreragina sustatuko duen hezkuntza interkulturean oinarritzen den planteamendutik bakarrik lor daitekeela integrazioa. Kontua ez da ikasle etorkinak harrera-gizartera egokitzea; harrera-gizarteak ere herritar berri horiek sortzen dioten egoera berrira moldatzeko ahaleginak egin behar ditu.

Testuinguru horretan, behar-beharrezkoa da ikastetxean harrera egiteko ardura dutenek ikasleen berri izatea: zergatik etorri diren, harrera-herrira iristeko bidaia-gorabeherak zein izan diren, eta haien bizitza- eta eskola-esperientzia zein izan den. Ez da nahikoa jakitea ikasleak euskal kultura ez den beste kultura batetik datozela, beste hizkuntza batean mintzo direla, batzuetan ez espainola (edo haren aldaera bat den gaztelania) ez euskara ez dakitela, eta askotan desberdintasun sozioekonomiko batetik datozela.

Ikastetxeak, ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonalak ez ezik, familiaren egoera ere ezagutu behar du, hezkuntza mailako esku-hartzea erabaki eta antolatzeko. Horretarako, beraz, guztiz beharrezkoak izango dira, besteak beste, estamentuen arteko informazio-trukaketa, agenteen arteko koordinazio sistematikoa eta funtzio eta espazioen antolaketa.

Eskaintzen den laguntza ezin izan daiteke estatikoa eta adaptazio-prozesuan zehar beti berdina, ezta iristeko unean bakarrik eskaini beharrezkoa, bai-

2 J.M.Paludàrias. "La acogida del alumnado extranjero en las escuelas públicas. Una reflexión necesaria para favorecer la integración plural". F.J.García Castaño et al. (comp.) Educación ¿Integración o exclusión de la diversidad cultural? Pp.35-47. Universidad de Granada. Granada.

zik eta ikasleak moldatze-prozesuan pasatuko dituen fase ³ guztietara egokitutakoa. Harrera-gizartearen lana da, eta, ondorioz, gizartearen agentea den eskolarena, une bakoitzean behar duen laguntza eskaintzea.

Ondorengo lerrootan, harrera-plana oinarri duen hezkuntza-jarduera diseinatzen lagunduko duten oinarrizko orientabideak jaso dira, parte hartzen duten estamentu guztiak aintzat hartuz.

Ez dugu ahaztu behar harrera on batek segurtasuna, autoestimua eta, askotan, ikasketetan arrakasta izateko oinarri sendoa ere eskaintzen duela.

2.1 Familiaren ingurukoak

Familiarekin egon egin behar da, eta ikastetxearen funtzioa zein den azaldu behar zaie, haren funtzionamendu, antolaketa eta zerbitzuei buruzko informazioa emanez.

Era berean, haiek ere bere egoeraren berri ematea espero da, ahal den neurrian behintzat: familian zenbat diren, etorreraren arrazoiak, lehengo eta oraingo egoera laborala, ikasleen lehengo eta oraingo eskolatzea, eta abar. Modu horretan, harremanak errazagoak izango dira, eta bi aldeetako aurreikuspenei eta elkarrengandik espero direnei hobeto erantzun ahal izango zaie.

Plana egiterakoan, kontuan hartu behar da erabat desberdinak izan daitezkeela familia horiek eskolarekiko dituzten igurikimenak eta oinarri kulturalak, eta guk ditugunak; horregatik, baliteke jarduera batzuen inguruan gaizkiurlertuak sortzea. Horregatik, hain zuzen ere, guztiz garrantzitsua da ikastetxe-ko kultura eta eskaerak ahalik eta ondoen azaltzea eta zabaltea.

Ez da ahaztu behar, hala ere, familia etorkinek seme-alaben hezkuntzan esperantza handiak jartzen dituztela, hori baita, haien ustez, harrera-gizartean txertatzeko modurik onena.

Dena den, zenbait kasutan, jarrera bestelakoa izaten da, eta kasu horietan egin beharrekoa, familiari seme-alabak eskolatzeko duten erantzukizunaz informatzea izango da, derrigorrezko eskolatzeko-adina duten bitartean behintzat.

3 Ikus 2. eranskina: Moldatze-prozesuko faseak.

2.2 Ikasleen ingurukoak

Aurreko ataleko gogoetek ikasleentzat ere balio dute.

Ohikoa da iritsi berriak erdi galduta ibiltzea, eta komunikazio-kodeak eta errealitate berrian aplikatzen diren arauak berenganatzeko zailtasunak izatea. Hain zuzen ere, horrexegatik ez dira jakintzat eman behar eta garbi adierazi behar dira. Ez da ahaztu behar gure eskaerak ulertzeko egin behar duten ahal-egin pertsonal eta intelektuala ikaragarria dela, eta iritsi berriak pairatzen duen desberdintasun- eta babesgabetasun-egoera ere larria dela. Hori dela eta, agertzen diren premiak detektatzeko ahalegin berezia egin behar da.

Neska-mutil hauek aurretiazko ezagutza batzuekin datoz gure ikaste-txeetara, hizkuntza bat edo gehiagoren jabe ere badira, eta eskolatzeko propio bat jarraitu dute. Ez da egia "ezer ez dakitela". Ikasle bakoitzaren jakite-maila oinarri hartzea garrantzitsua da ikaskuntza berriak egiteko. Beraiekiko ditugun itxaropenak altuak behar dute izan.

Beharrezkoa da harrera on bat bermatzea, eta beren ikaskideekin etengabeko elkarreragina bultzatzea; horietan, hizkuntzaren erabilerari eman behar zaio lehentasuna, komunikazio-egoera bakoitzeko erabilerari, hain justu.

Txikientzat, lehen eskolatzeko bada, leku- eta irakasle-aldaketa oso deserosoa izan daiteke, eta, horregatik, erreferentzia afektibo argiak adieraztea guztiz garrantzitsua izango da.

2.3 Irakasleen ingurukoak

Irakasle-talde osoak hartu behar du parte gelako jardueretan tutorearekin koordinatuta. Nabarmenezkoa da, era berean, errespetuak, enpatiak eta jarrera positiboek ikaslearen eta gurasoen adaptazioa erraztu egiten dutela. Gainera, ikastetxe/familia harremana sustatzen dute, eta hori, lehen esan bezala, garrantzi handikoa da integrazioan.

Beste alde batetik, gogoan hartu behar da irakasle guztiak bihurtzen direla hizkuntza-irakasle. Ez dira ahaztu behar horrek dakartzan hezkuntza-betekizunak; horregatik, betekizun horiek aurreikusi egin beharko dira, inte-

grazio soziala ahalik eta gehien bultzatzeko eta area bakoitzaren hizkuntza-eskaerak asetzeko.

Behin baino gehiagotan frogatu denez, taldekatze heterogeneoak eta talde-lanak aberastasun handia dakarte, eta metodo tradizionalagoek baino aukera zabalagoa eskaintzen dute; horregatik da garrantzitsua honelako metodologiak sustatzea.

2.4 Zentroko antolaketaren ingurukoak

Adaptazio-prozesuan funtsezkoa den elementuetako bat ikastetxee-tako langileak eta bitartekoak aldeztatik antolatzea da, balizko ikasle etorki-nen beharrei aurrea hartzeko.

Ikasleek denbora luzea pasatzen dute irakasle ez diren ikastetxeko lan-gileen begiratupean. Horregatik, ikastetxe osoak izan behar du Plan Estrategikoan eta Harrera-planean ezarritako oinarrien berri. Langile guztiek (ez bakarrik irakasleek, baizik eta baita atezainak, jantokiko arduradunek, eskola-laz kanpoko jardueretakoek, eta abarrek ere) bere egin behar dute planak adie-razitakoa.

3 ZUZENDARITZA TALDEAREN JARDUERAREN INGURUKO ORIENTABIDEAK

Familia iritsi berriak zuzendaritza-taldearen eskutik jasoko ditu ikastetxearen lehenengo inpresioak. Beraz, garrantzitsuak dira, oso, hasierako kontaktuak.

3.1 Familiekin izan beharreko hasierako kontaktua

Giro atseginean egin beharreko kontaktuak dira hauek, elkarren berri izateko eta elkarri laguntzeko oinarriak ezartzea baita helburua. Une egokia da familiei ikastetxeko funtzionamenduaren berri emateko, haietaz espero dena esateko, eta abar. Familiaren egoerari buruzko informazioa eskuratzeko ere une egokia da.

Garrantzitsua da zuzendariak, edo lehen kontaktu horren ardua duen pertsonak, leku atsegina eta denbora nahikoa izatea kontaktua lasaitasunez eta etenik gabe egiteko.

Familiarekin izaten diren lehenengo elkarrizketetan ematen den informazioa oinarritzkoa eta ulertzeko modukoa izatea komeni da; ez da komeni familia behartzea ezin eman dezakeen edo eman nahi ez duen informazioa ematera. Gerora egingo diren kontaktuetarako komunikazio-oinarriak ezartzea da helburua. Adibide gisa, hona hemen lehen kontaktu horretan jorra daitezkeen gai batzuk:

1. Ikastetxearen funtzionamenduari eta antolaketari buruzko informazioa ematea.

Ordutegiak, jarduerak eta eskolara huts egitearen inguruko protokoloa.

Ikasleak behar duen materiala.

Testu-liburuak, materiala eta jantokia ordaintzeko beka eta laguntzak eskuratzeko informazioa. Azaldu nork duen laguntzak jasotzeko eskubidea, eta eskaerak betetzen lagundu.

Ikastetxearen beste zerbitzuak eta jarduerak: jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak, irteerak, txangoak, eta abar.

Laguntza eta informazioa eskain dezaketen gizarte-zerbitzuak.

2. Familiaren jatorriko hizkuntzan idatzitako idazki bat ematea, honako datu hauek zehaztuz:

Hezkuntza-sistemari buruzko oinarrizko informazioa.

Ikastetxearen helbidea, telefonoa eta harremanetarako pertsonaren izena.

Gurasoek gelako eta ikastetxeko jardueretan parte hartzeko izan dezaketen aukera.

Gainera, komeni da ikastetxea bera erakustea: gelak, gimnasioa, liburutegia, jantokia.

Ahal bada, hasierako elkarrizketarako, hitzordua jartzea komeni da informazio gehiago eskuratzeko.

Kontuan izan behar da familia batzuen hizkuntza, kultura eta keinuzko kodeak eta gureak desberdinak izan daitezkeela, eta horrek gaizkiulertuak sor ditzakeela. Halaber, haien familia- eta eskola-ereduek gureak ez dituzten hierarkia eta egiturak izan ditzakete, eta hori kontuan hartu beharko dugu oreka lortzeko, urruntasun gehiegi edota kidetasun larregi egon ez dadin.

Familiaren hizkuntza arrotza egiten zaigunean, eta baliabiderik ez dagoenean, Lurralde Ordezkaritzako itzulpen-zerbitzua eskatu ahal izango da. Horrelako langile kualifikatuak erabiltzea nahitaezkoa da informazio-truke argia, osoa eta isilpekoa izan dadin.

3.2 Hasierako elkarrizketa

Helburuak hauek dira:

- Tutorea eta hizkuntza indartzeko irakaslea ikasleari eta familiari aurkeztea. Komeniko litzateke tutoreak elkarrizketan parte hartzea.
- Ikastetxearen helburuak, hizkuntza-proiektua eta nortasun-ezaugarriak adieraztea.

- Hezkuntza-sistemaren inguruan familiak izan ditzakeen dudak argitzea. Ikastetxeak argazki-bilduma bat erabil dezake, egiten diren ekintza edo jarduerak azaltzen laguntzeko.
- Ikasle etorkinaren eta familiaren inguruko informazio zehatza jasotzea: jatorria, familiako hizkuntza, ordura arteko eskolatzea, bizilekua, familiako kideak, eskolatzearen egoera eta jarraipena, alderdi sozial eta kulturalak, eta abar. (Eranskinak: Ikaslearen oinarritzko informazioa)
- Jasotako informazioa erregistro batean bilduko da, eta ikaslearen artxiboan gordeko da.
- Gelako martxan esku hartzeko planaren berri ematea, ikasturte batean izen emateko argibideak eskaintzea eta taldean esku hartzeko planaren berri ematea.
- Indartze-programa azaltzea, eta ikaslearen parte-hartzeaz galdetzea.
- Etxeko lan, irteera, eskolaz kanpoko ekintza eta antzekoen jardunbidearen berri ematea.

Ikasle batzuek, heldutasunaren eta aurreko esperientziaren arabera, hasierako elkarrizketa honetan har dezakete parte eskolatzeko-prozesua hobeto ulertzeko eta gehiago inplikatzeko. Txikitxoei on egingo die ikastetxera egiten duten lehenengo bisitan familiarekin batera joatea, eta errespetuz tratatzen dituztela ikustea.

3.3 Ilkasturtean izena emateko irizpideak

Ikastetxe bakoitzak zehaztu beharko ditu ikasle bakoitza zein talde/gelatan kokatu erabakitzen lagunduko duten irizpideak. Irizpideak malguak izango dira, kasuaren arabera moldatu ahal izateko.

Irizpiderik garrantzitsuena adina da, sozializazioa errazago egiten baita adinkideen artean, eta gainera, antzeko adina dutenen artean portaerak ikastea eta harremanetarako hizkuntza bera ikastea ere errazagoa baita.

Beheko mailetan, ona izan daiteke ikasle berriak, lehenengo egunetan, hurbileko umeren batekin elkartzea (familiakoa edo laguna dena), eskolako martxa hartzen lagun diezaion.

Kontuan hartzekoak izango dira, halaber, ikaslearen ordura arteko eskolatzea, eskolako hizkuntzetan eta etxekoan hitz egiteko eta idazteko gaitasuna, bere garapena eta egoera familiar eta soziala.

Ikaslearen egoerak edo taldeak hala eskatzen duenean, hasierako kokalekua alda daiteke, irizpideekin bat ez badator ere.

Edozein modutara, ez da komeni ikaskideekiko adin-aldea urtebetekoa baino handiagoa izatea.

3.4 Orientabideak eta aholkularitza

Ikastetxearen beraren baliabideez gain, Berritzeguneetako aholkularitza-zerbitzuak ere erabil daitezke honako hauek egiteko:

- Hasierako elkarrizketa eta ikaslearen jarraipen-bilerak.
- Ikasleek ikasturtean izena emateko kontuan hartu beharreko irizpideak balioestea.
- Ikaslearen hasierako ebaluazioa, hauek neurtzeko: hizkuntza-gaitasuna (ama-hizkuntzan eta Erkidegoko hizkuntzetan), jakitate-maila eta ikasketa-trebetasunak.
- Beharrezkoak diren ikasketa-planifikazio eta curriculum-moldatzeen inguruko orientabideak.
- Materialak sortzea eta moldatzea.

3.5 Informazioaren tratamendua

Familiak emandako informazioa kontu handiz kudeatu behar da, eta egoki bereizi behar da zein den konfidentziasunez mugatu beharreko informazioa eta zein harrera-planean parte hartzen duten eragileekin partekatzea. Hauek dira eragileak:

- Tutorea.
- Hizkuntza indartzeko irakasleak eta laguntza- eta orientazio-taldea.
- Zikloko irakasleak.
- Ikaslearekin harremana duten eskola-elkarteko bestelako kideak.

3.6 Beste gizarte-zerbitzuekiko harremanak

Ikastetxea ez da etorkinak gizarteratzeko eta haien egoerari erantzun egokia emateko lanean dabilen erakunde bakarra. Difusio-lana egin beharko da, udalerrriak dituen bestelako baliabideak jakinarazteko eta baliabide horien erabilera-estrategiak bideratzeko.

Lehen Hezkuntzako ikasleek, eta bereziki DBHko ikasleek, geletatik kanpo hainbat ikasketa-ordu behar dituzte. Batzuetan ez da erraza etxean horretarako leku egokia topatzea, kontsultatzeko liburuekin eta giro aproposarekin, edota oinarrizko dudak argitzen lagunduko dien pertsonarekin. Azpiegitura hori eskaintzen duten erakundeak badaude.

Ikasle askok beren aisialdia telebistaren aurrean edota kalean pasatzen dute. Badaude, ordea, baliatzen ez diren jolas-zentroak eta kirol-jarduera antolatu eta subentzionatuak. Aisialdiko eskaintzen berri emateko ahalegin handia egin behar da, eta arreta berezia jarri behar da nesken kasuan; izan ere, familiar erantzukizun handiagoko rola hartzen dutenez, eskaintza haietara iristeko aukera gutxiago izaten dute.

Etorkinei jakinarazi behar zaizkien zerbitzu batzuk:

- Udaletxearen mendean dauden zerbitzu kultural eta aisiakoak.
- Zerbitzu medikoak.
- GKEak.
- Zerbitzu juridikoak, GKEen mendekoak eta haien mendeko ez direnak.
- Lan-poltsen zerbitzuak.
- Sindikatuetan etorkinen gaia lantzen duten sailak.
- Emakumearen arretarako zerbitzuak.

- Familia-plangintzako zerbitzuak.
- Helduen hezkuntza eta jatorriko hizkuntzen irakaskuntza.

4 IRAKASLE TALDEAREN ETA ZIKLOKO IRAKASLEEN JARDUEREN INGURUKO ORIENTABIDEAK

4.1 Orientabideak

Irakasle-talde osoak, eta bereziki ziklokoak, egoeraren azterketan inplikatu behar du, bai eta ikasle etorkinen arretarako hartzen diren kasuan kasuko erabakietan ere.

Iritsi berriari errealitate sozial berrira egokitzen lagunduko dion gelako giro erlaxatu eta atsegina lortzeko neurriak talde osoak izan behar ditu kon-tuan. Neurriak dira:

- Harrera bero, lagunkoi eta iraunkorra egitea, baina ez gehiegizkoa. Ez da komeni informazio gehiegi ematea eta jende asko egotea.
- Ikaslearekin harremanetan egongo diren irakasle guztiak aurkeztea.
- Ikastetxea eta oinarrizko zerbitzuak erakustea.
- Hasiera-hasieratik bete behar diren ikastetxeko irizpide eta arauak azaltzea.
- Ikasleen eta proposatutako ordutegi eta jardueren ikuspegi orokorra emate'a.

4.2 Estrategiak

Besteak beste, ikastetxeko langile guztiak erabil ditzaketen komunikazio-estrategia lagungarriak dira:

- Ikasleak oinarrizko informazioa ulertu duela eta, hitz egiten duenean, besteek entzuten diotela ziurtatzea.
- Inplikaturako pertsonari aurpegira begiratzuz hitz egitea.

- Esaldi argi eta zuzenak erabiltzea, astiro hitz egitea, eta, komunikazioa zaila denean, adierazkortasunez, ondo ahoskatuz eta hizkuntz-maila apala erabiliz hitz egitea.
- Hitzeko informazioa keinu edo irudiz laguntzea.
- Arretaz entzutea eta parte-hartzea bultzatzea. Ikasleak zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta hobeto.
- Komunikazioa sustatzen duten ahozko jarduerak bultzatzea eta egoera informalak sortzea —jolasa, adibidez— komunikazio-testuinguru horretako hizkuntza barneratzen laguntzeko.
- Komunikazio-ahalegin txikiaren aurrean ere, ulermena eta erantzun positiboa erakustea, ahaleginari eta esanahiaren negoziazioari berari garrantzi handiagoa emanez mezuaren zuzentasunari baino.
- Hizkuntzaren jabetze-prozesuari denbora ematea, ikaslearen ahoz-kotasuna bultzatuz, baina behartu gabe.

4.3 Jarduera zehatzak

- Hasierako balioestea

Ikasleak arlo guztietan duen maila ezagutzea du helburu, batez ere, arlo instrumentaletan eta hizkuntzetakoan. (ikus 6. atala)

- Curriculuma epe ertainera antolatzea. Jarduerak eta materialak.

Eskola-ibilbidearen eta hasierako balioestearen emaitzen arabera, curriculuma bakoitzaren premietara moldatuko da, materialak eta jarduerak egokituz. Horretarako, ikastetxeko laguntza-zerbitzuen eta Berritzeguneen laguntza izango dute.

- Banakako arreta. Giza baliabideak eta materialak.

Ikastetxearen antolaketa malgua izango da, ikasturtean zehar ikasle etorkin gehiago ager baitaiteke, eta etorrera mailakatu horren eskaerei erantzuteko baliabideak optimizatu beharko dira. Garrantzitsua da metodo eta materialak ikaslearen adinerako egokiak izatea.

- Laguntzak antolatzeko oinarrizko irizpideak:
 1. Tutorea da ikaslearen ikasketa-prozesuaren jarraipena egin behar duena. Banakako planetik eratorritako zereginak irakasle arruntei esleituko zaizkie, eta soilik urritasun fisiko edo psikikoetatik eratorritako hezkuntza-zereginak esleituko zaizkie pedagogia terapeutikodun irakasleei.
 2. Hasierako laguntza ahozkoa izango da, eta gaitasun komunikatiboa bultzatuko da.
 3. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, gelan bertan landuko da beste irakasle baten laguntzarekin. Horrela, ikasleak beste ikasleentzat prestatzen diren jardueretan ere parte hartu ahal izango du.
 4. Lehen Hezkuntzan, gelatik kanpoko laguntza ere planteatu daiteke saio labur eta sistematikoetan, eta talde txikietan.
 5. Bigarren Hezkuntzan, gelako eta gelatik kanpoko laguntza beharko da, eta zenbait kasutan, irakasle-taldeak prozesuaren jarraipen zuzena egitea ere beharrezkoa izango da.
 6. Prozesu hori ikasle bakoitzaren banakako planak bideratuko du, eta zehaztuko ditu, batetik, erreferentzia-taldeko beste ikasleekin batera burutu beharreko gelako jarduera arruntetako parte-hartzea, eta bestetik, hezkuntza-premiei erantzuteko beharrezkoak diren indargarriak, hala dagokionean.
 7. Oso garrantzitsua da ikasle-irakasleen ordutegiak modu eraginkorrean antolatzea, irakasleek ordu libre solterik izan ez dezaten. Esku-hartze sistematiko eta eraginkorrak agentekopuru txikia eskatzen du, eta koordinazio handia. Guztien ahaleginak leku berera bideratu behar dira, eta giro lasaia lortu, elkarrekintzetan aberatsa izango dena eta hizkuntza ahalik eta modu zabalenean erabiliko duena.
- Ordutegiak:

Ikaslearen ordutegia irakasle guztiak kontuan hartuta egingo da.

Ikasle etorkinak ikaskideekin batera egongo dira gelako giroan murgiltzen lagunduko dieten ikasgaietan: gorputz-hezkuntzan, plastikan, musikan, ingurunearen ezagueran, matematiketako jarduera batzuetan, atzerriko hizkuntzan eta tutoretzan, berdintasuneko elkarrekintza eta ahozkoa ez den komunikazioa bultzatzen dutelako metodologiak eta klaseetako dinamikak berak. Atzerriko hizkuntzen kasuan, hasierako mailetan bakarrik egongo dira elkarrekin, bertako ikasleen eta ikasle etorkinen maila antzekoa denean.

Gelatik kanpo egon behar badu, hobe da hizkuntza bera ikasgai den gaietan edo hizkuntza bera lan-tresna bakarra denean izatea.

Ikasleek ordutegiaren berri izan behar dute, aurreikuspenak egiteko eta era autonomoan jokatzeko. Gainera, beti ere malgutasunez jokatzeko saiatu behar da. Hau da, aberatsa den jarduera bat uste baino gehiago luzatzen bada, hobe da horrekin segitzea, nahiz eta ordutegia aldatu behar izan.

5 IRAKASLE TUTOREEN GARRANTZIARI ETA GELAKO HARRERARI BURUZKO ORIENTABIDEAK

Tutorea erreferentziatzeko pertsona da, eta haren bidez garatuko dira harreman afektiboak. Harrera ona egiteko kontuan hartu beharrekoak:

1. Ikasleari eta haren familiari ematen zaion informazioa argia eta zehatza izango da, hezkuntza-helburuak eta gizarteratzeak duen garrantzia azpimarratuz.
2. Oinarrizkoa da ikasle berriaren trebetasunak erakusteko egoerak sortzea ikaskideen aurrean, haren autoestimua indartzeko eta beste ikaskideen begirunea lortzeko.
3. Komeni da gelan enbaxadore-sistema bat abian jartzea, "lagun berriak"⁴, ikasle berriari laguntza emateko eta taldean sartzen errazteko.
4. Ikasle berria beste ikaskideek egiten ez duten jarduera bat egiten ari denean, arreta iraunkorra eman behar zaio. Ezin da bazterrean utzi gehiengoari arreta eskaintzen zaion bitartean. Egoera horiei aurre egiteko modurik onena elkarlana eta maila berekoen arteko tutoretza dira.
5. Tutoretzaren gogoetarako unean, ikasleen aurrerapausoak zein izan diren adieraziko da, eta ikaskideen laguntza zein arlotan behar duen zehaztuko da.

5.1 Gelaren harrera

Prestaera

Ahal bada, ikasle berria etorri aurretik, taldeari horren berri emango zaio, ikaskideen artean ikasle berria ezagutzeko gogoia piztuz, ikaslearen herri-

⁴ Ikus 3. eranskina: Ikasle enbaxadoreak. (Lagun berriak).

aldearen eta hizkuntzaren inguruko informazioa emanez, eta abar. Hori guztia balioesten lagunduko da:

1. Etorkinaren hizkuntzako hitzei buruzko galderak eginez.
2. Mapamundian jatorriko herrialdea kokatuz.
3. Ongietorriko kartela prestatuz.
4. Ongietorriko ekintzak prestatuz.
5. Pertsona edo talde enbaxadorea aukeratuz.

Antzeko esperientzia izan duten ikasleen ekarpena oso garrantzitsua da, taldeak eman dezakeen laguntza eta pertsona edo talde enbaxadorearen zereginak modu antolatuan diseinatzeko.

Egoera hori bizi izan duen inor ez badago, iritsiko den pertsonaren inguruan gogoeta eginaraziko zaio taldeari, eta bakoitzari bere burua egoera horretan koka dezan eska dakioke, pentsatuz zer gustatuko litzaiokeen jakitea edo zer beharko lukeen balizko egoera horretan. Jasotzen diren ekarpenekin, pertsona edo talde enbaxadoreen zereginak ezar daitezke.

Beste ikaskideen laguntza oinarrizkoa izan daiteke harrera arrakastatsua izan dadin. Taldeak hainbat estrategia erabil ditzake iritsi berriari hizkuntza ulertarazteko: irudiak erakustea zenbait hitz uler ditzan, astiro eta ondo ahoskatuz hitz egitea, pazientzia izatea, behin eta berriro ekitea ulertarazi arte, ez etsitzea, hizkuntza komun bat bilatzea, eta abar.

Garrantzitsua da, halaber, gelako dekorazioa erakargarria eta adierazgarria izatea, ikastetxean eta auzoan kokatzen lagunduko duten argibideak ematea, hizkuntza oinarrizkoa eta erabilgarria bereganatzen has dadin, eta gelako errutinak errazago finka ditzan.

Aurkezpena

Tutoreak du iritsi berria beste irakasleei aurkezteko eta ikastetxearen instalazioak erakusteko ardura.

Bere izenez aurkeztu behar du iritsi berria tutoreak. Izena jakin eta behar den bezala ahoskatzeko ahalegin berezia egin behar da, eta transkripzio egokia erabiliz idatzi.

Aurkezpenean pertsonaren alde positiboak nabarmendu behar dira: zer egiten dakien, zer hizkuntza dakizkien, eta abar. Ez da sekulan inor definitu behar ezagutzen ez duena nabarmenduz, harrera berdintasunean eta errespetuan egin nahi badugu behintzat.

Tutoreak egiten duen aurkezpenaz gain, kontuan hartu behar da gelako guztiak direla ezezagunak iritsi berriarentzat. Horregatik, garrantzitsua da, ikaskideak eta ikaskideen jaioterriak aurkezteko, jarduera erraz batzuk antolatzeari, helburu bikoitz batekin: batetik, gelako ikaskideak ezagutzea, eta, bestetik, aurkezpen eta agurren inguruko hizkuntza praktikatzeari.

Atzerriko hizkuntzak ikasteko erabiltzen diren hainbat jarduera oso erabilgarriak izan daitezke hasiera batean, eta ikastetxe osoak erabiltzeko moduan jarri beharko lirateke artxibo batean.

Gelako guztientzako ikasketa-jarduera errazak antolatu behar dira, iritsi berriak beste guztiekin batera naturaltasunez parte har dezan. Adibidez:

1. Norberari buruzko datuekin osatutako fitxa bat egitea eta gelako hormetan itsastea.
2. Bizitzako gorabeheren arabera, datu berriak gehitzea eta tarteka aldaketak kontrolatzea.
3. Bakoitzaren herria mapan kokatzea, hiriburua esatea eta ezaugarri garrantzitsu batzuk aipatzea.
4. Matematika-eragiketa errazen bat egitea hizkuntza-testuinguruaren beharrik gabe.

Eskola-materialik ez edukitzea integrazio- edo komunikazio-arazoan iturri izan ez dadin, "ongi-etorri" kutxa bat antolatzea komeniko litzateke, iritsi berriari eskaintzeko. Eskola-material arruntez osatutako kutxa izango litzateke: errotuladoreak, margoak, guraizeak, eta abar; hiztegia lantzeko aldizkarietako irudiak, marrazkiak, argazkiak, eta abar; matematiketan laguntzeko koloretako erregelak, erloju bat eta gorputz geometriko batzuk; gelako altzariak izendatzeko etiketak; irudi-hiztegi batzuk, eta abar. Irudietan, arraza askotako erreferentziak eta beren aurreko esperientzietako batzuk agertzea komeni da.

Taldean aisialdiko talde antolatuak badaude, hala nola urtebetetze-ospakizunak edo eskolaz kanpoko ekintzak, komeni da familia berriari parte hartzen

lagunduko dion norbait egotea, topaketa informal horietan parte hartu nahi badute behintzat.

Gelaren antolaketa eta funtzionamendua

Ikasle guztiek hartu behar dute parte harreran, gelako dinamikan eragina izango duelako, eta ikasketa-esperientzia aberasgarria izango delako.

Iritsi berriaren hizkuntza ezagutzen duen ikasleren bat baldin badago, komeni da hasierako egunetan elkarrekin esertzea, gelarekin lotura errazteko, betiere inplikaturakoak ados badaude.

Era berean, epealdi laburrean eta txandaka arituz, harrera-lanak egingo dituen ikasle-talde bat ere osa daiteke.

Taldearen dinamikan sar daitezkeen jarduera orokorrago batzuk eta taldeari kultura berria ezagutzen lagunduko diotenak hauek dira:

a. Jarduerak:

1. Ikaskideen izenak idaztea bere hizkuntzan.
2. Testuak konparatzea.
3. Jokoak egitea.
4. Abestiak ikastea.
5. Musika entzutea.
6. Jakiak dastatzea.
7. Janzkerak konparatzea.

b. Antolaketa:

8. Txoko bat antolatzea hainbat herrialdetako argazkiekin, hainbat hizkuntzako testuekin, agurrekin eta abar.
9. Lantzen ari den gaiaren inguruko edozein arlori buruzko informazioa karteletan jartzea (maiz aldatu beharko dira).
10. Gelako liburutegia: Ikasleen ama-hizkuntzetan idatzita dauden testuak daudela ziurtatzea eta jatorriko herriaren ingurukoak ere bai.

Gela lan-talde txikitan antolatzeak maila berekoen arteko elkarrekintza eta integrazioa sustatzen du. Komeni da taldeko arduren banaketan denok parte hartzea, txandaka.

Lehen egunetan, egin behar duena zehatz-mehatz azaldu behar zaio, eta ordutegi bat eman behar zaio unean-unean tokatzen dena komentatuz.

Jarraipena eta koordinazioa

Ikaslearen ikaste-prozesuaren jarraipena egiteko ardura tutoreak du. Hartara, koordinazio-bilerak antolatu behar ditu tarteka beste irakasleekin, bai ikastetxeekin, bai kanpoko zerbitzuetakoekin.

Bilera horien helburua prozesua balioestea eta lan-metodoak, edukiak, eta materialak eta beharrezkoak diren curriculum-egokitzapenak berraztertzea izango da.

6 HASIERAKO BALIOESTEA ETA BANAKAKO INTERBENTZIO PLANA

6.1 Hasierako balioestea

Hasierako balioestearen helburua ikaslearen hezkuntza-beharrak zehaztea da, horretan oinarrituta, banakako interbentzio-plana diseinatzeko.

Erreferentzia-taldeko tutoreak eta hizkuntza indartzeko irakasleak egingo dute hasierako balioestea, aholkulariak edo orientatzaileak ematen dizkien tresnez lagunduta.

Hasierako balioestea egiteko urratsak:

A. Lehenengo elkarrizketan, familiak ematen duen informazioa jaso

- Adina
- Orain arteko eskolatzea
 - eskolatzeko-urteak
 - eskolako hizkuntza
 - idazkera-irakurketaren ikaste-prozesuaren egoera: hasiera...
- Familiako hizkuntzan duen hizkuntza-gaitasuna
- Euskaraz eta gaztelaniaz duen gaitasuna
- Interes eta gustuak

B. Arlo instrumentaletan duen gaitasuna ebaluatu

Lehen Hezkuntzako ikasleei ez litzaieke, gelako taldean edo indartze-gelan sartu aurretik, hasierako ebaluazioaren inguruko programa gogorregia egin behar. Integrazio-modura egin daiteke. Hala ere, eta aholku gisa,

“Hasierako balioestea egiteko adierazleak” eranskinean hizkuntza eta matematika arloetako oinarrizko irizpide batzuk agertzen dira.

Bigarren Hezkuntzan, berriz, ikaslearekin hasierako elkarrizketa bat egin daiteke, haren premia eta igurikimenak ebaluatzeko.

B.1. Familiako hizkuntzan duen gaitasuna

Ez da ahaztu behar etxeko hizkuntzan duen ulermen-mailaren eta mintzamenaren ebaluazioa egitea. Balioestea egiteko ardua duenak ikaslearen hizkuntza ezagutu ez arren, idatzizkoan duen gaitasuna antzeman dezake zenbait irizpide kontuan izanda: idazketa eta irakurketarekin duen trebetasuna, idazketaren arau orokor batzuk ezagutzea, testua berrikustea, akatsak zuzentzea...

Interesgarria izan daiteke familiako hizkuntzan dagoen testu bat irakurraraztea eta beste bat idatzaraztea (adibidez, bere sorlekuari buruzkoa). Gainera, ahal bada, ikasleak lehenago erabilitako eskola-materialak azter daitezke.

Hau guztia garrantzi handikoa da; ez baita gauza bera irakurtzen eta idazten dakien eta ikasitakoa beste kode batera pasatu behar duen ikasle batentzako esku-hartze plan bat sortzea edo idazteko eta irakurtzeko zailtasunak dituen edota alfabetatu gabe dagoen batentzat egin behar izatea.

B.2. Eskolako hizkuntzetan duen gaitasuna: euskara/gaztelania

Erkidegoko hizkuntzak zenbateraino dakizkien balioestea ikaslearen ahozko gaitasunaren arabera egingo da, eta hizkuntza horietakoren bat badauki, kontuan hartuko da idatzizkoan duen trebetasuna ere.

Ahozko maila elkarrizketa informal baten bidez neur daiteke, galdera eta agindu sinpleen bidez egiaztatuz ulermen-maila eta parte hartzeko duen gaitasuna. Irudiak, koloreak, forma geometrikoak, edo inguruko gaiak islatzen dituzten argazkiak erabil daitezke haren hiztegi-maila neurtzeko.

Elkarrizketa-galdera zailagoak egin daitezke ikasleak oinarrizko maila gainditzen duela ikusten bada.

Idatzizko ulermena egiaztatzeko, lehenengo, istorio simple bat irakur daiteke, eta gero, gauzak zenbateraino ulertu dituen ikusteko, galderak egin daitezke. Idatzizkoa neurtzeko, idazketa estimulatzen duten aldizkarietako irudi interesgarriak erabil daitezke. Idatzizko mailan ere, irudi eta testu zailagoak erabiliko dira oinarritzko maila gainditzen bada.

B.3. Matematiketako gaitasuna

Ikasleen adinari dagozkion oinarritzko gaitasunak balioetsi behar dira. Lan errazenetatik hasi eta zailagotuz joan daiteke Curriculumean zehazten diren trebetasun eta kontzeptu nagusiak oinarritzat harturik. Balioestea edukiaren bloke guztien gainean egin behar da: aritmetika, neurriak, geometria, eta informazioaren tratamendua. Komeni da proposatzen diren lanek euskarriren bat izatea ulermenean laguntzeko, hala nola: irudiak, informazio garrantzitsua nabarmendua...

Kontuan izan behar da matematikak era desberdinean erakusten direla herrialde batetik bestera, eta mailakatze desberdina ere ematen zaiela.

B.4. Ikaslearen portaera beste esparru batzuetan

Ikasketaren eremuko trebetasunak baloratzeaz gain, garapen pertsonal eta sozialari ere erreparatu behar zaio, esparru hauetan bereziki: interesak, zaletasunak, lan-ohiturak, jarrerak, portaera, taldean integratzea, eta abar.

Azterketa hori leku eta egoera desberdinetan egitea komeni da, giro bakoitzaren dinamika desberdina denez; horrek azterketa osoagoa eta fida-garriagoa egiten lagunduko du. Azter daitezkeen egoerak: gelako taldean, jantokian, jostaldian, gimnasioan, liburutegian, eta abar.

Ilido horri jarraituz, familiak egiten dituen ekarpenak ere kontuan har daitezke. Aztertu behar dira:

- Nola hasten den harremanetan besteekin
- Nola jarraitzen dion gelako eta ikastetxeko egunerokotasunari

- Zer-nolako estrategiak erabiltzen dituen besteekin harremanetan jartzeko
- Zer-nolako portaerak erakusten dituen etxeko lanekiko
- Nola moldatzen den lan-taldean

Ebaluazioa konplexua izaten da beti gazteekin. Beste bat bera aztertzen ari dela jakiteak larritasuna eta beldurra sortzen die, ez baitute beren burua gai ikusten ezarri zaizkien helburuak lortzeko, komunikatzeko edo ulertzeko. Haiei laguntzeko neurriak martxan jarri behar ditu ikastetxeak; adibidez:

- ebaluazioarekin zein helburu lortu nahi den azaltzea.
- giro lasai eta atsegina lortzen saiatzea.

Ona da bakoitzak nahi duena lasaitasunez azaltzeko adina denbora izatea. Ez dugu ahaztu behar egoera berri baten aurrean dagoela, eta, komunikatzeko dituen zailtasunen eraginez, okerreko irudia eman dezakeela bere trebetasun eta gaitasunen inguruan.

Horregatik, informazioa eskuratzeko hilabeteko epea-edo eskain daiteke. Ez da derrigorrezkoa hasiera batean hartzen diren erabakiak definitiboak izatea.

Noizean behin, jasotzen den informazioa eta informazio horretan oinarrituz hartu diren neurriak berrikusi egin behar dira, eta desegokitzat edo gainditutzat jotzen direnean aldatu.

6.2 Etengabeko ebaluazioa

Ikasle etorkinen etengabeko ebaluazioa besteei egiten zaienaren parekoa izango da, baina ikasle horien berezitasunak kontuan hartuz bestelako faktore batzuk ere baloratu beharko dira, hala nola:

- eskola-jarduerekin zerikusia duten egoeretan parte hartzea: adi egoeteko gaitasuna, iritziak plazaratzea, zuzentasunez hitz egiteko ahalegina...

- Talde-lanean inplikatzeari, ohiturak barneratzen joatea, erantzukizuna, autonomia hartzen joatea...
- Eskolara jarraian etortzea, etxeko lanak egitea...
- Landutako oinarrizko edukiak barneratzea, bereziki prozedurak eta jarrerak lantzen dituztenak, hiztegia aberastea, ahoskera eta idazkeraren hobetzea...

Ebaluazioaren abiapuntua ikasleen hasierako maila izango da, eta pertsona horren garapenari egin behar dio erreferentzia, gelako besteekin konparatu gabe.

6.3 Banakako interbentzio-plana

Ikasle etorkinak ez du hezkuntza-premia berezirik. Hala ere, eskolako hizkuntzak barneratzen lagunduko dion interbentzio-programa behar du, taldean murgiltzen lagunduko diona eta ikasketa-prozesua bideratuko duena.

Hasierako balioestea egin ondoren, irakasle tutoreak, aholkulariarekin eta hizkuntza indartzeko irakaslearekin batera, banakako interbentzio-plana egingo du, alderdi hauek zehaztuz:

1. Sustatu behar diren helburu eta ikaskuntzak eta horiek zein hizkuntzatan egingo diren.
2. Zereginak:
 - a. gela barruan egiteko: zein esparrutan, zer-nolako baliabide-motak (giza baliabideak eta/edo materialak: eskolako materiala moldatzea, familiako hizkuntzan idatzitako liburuak...)
 - b. gelaz kanpo egiteko: landuko diren esparru eta edukiak, parte hartuko dutenak...
3. Prozesua zenbat epetan banatuko den.
4. Ikasle berriari integratzen lagunduko dioten tutoretza-izaerako jarduerak.

5. Lan-planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko irizpideak, prozedurak eta egutegia.

Banakako plana berrikusi egin behar da, hasierako balioestearen inguruko atalean aipatzen genuen moduan. Ikastetxeak bilerak antolatuko ditu maiz, ikasle berriaren eskolatzeko-prozesuaren inguruan ahalik eta informazio zehatzena lortzeko eta hezkuntzaren esku-hartzea egokitzeko.

7.1 Sarrera

Ikasle etorkinen harrera-planaren lehenengo helburuetako bat helduen hezkuntza integrala bultzatzea izango da, batik bat seme-alabak dituztenengan; azken batean, hezkuntza-sistemaren harrera egokiak ondorioak izango baititu seme-alabengan.

Lehenago ere aipatu dugu derrigorrezko hezkuntzako ikaslearen adaptazio-prozesuan familiak eta eskolak duten garrantzia. Hortaz, guztiz garrantzitsua da helduen ikastetxeetako hezkuntza-eskaintza ahalik eta zabalen eta aberatsena izatea ikasleen premiei hobeto erantzuteko.

Beharrezkoa da, beraz, harrera-plan bat egitea, derrigorrezko hezkuntzan proposatzen dena bezalakoa. Plan hori IHPan jasoko da, hezkuntza interkulturalaren esparruan, eta IIPan zehaztutako hezkuntza-jardueran islatuko da, baita gelako programazioetan ere.

HHiko ikasleen artean emakume asko daude, eta berebiziko garrantzia dute familien integrazio sozialean. Gainera, migrazioa, pobrezia bezala, emakumetzen ari da, eta gero eta gehiago dira seme-alabekin bakarrik edo haurdun datozenak. Beraz, garrantzitsua da emakumearen parte-hartzea bultzatuko duten neurri zehatzak hartzea: premietara egokitutako eskaintza zabala, ikastaro eta ordutegi malguak, diskriminazio positiboak, eta abar.

HHiko ikasleek arrazoi zehatzek bultzatuta jotzen dute zentroetara, eta helburu zehatzak lortu nahi dituzte. Ondoren, ikasleek adierazitako batzuk jaso ditugu:

- hizkuntzak ikastea
- gidatzeko baimena lortzea
- gizarteratzea

Nahiz eta Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleentzat planteatutako alderdi batzuekin bat etorri, badira beste batzuk ikasle helduentzat bereizgarriak direnak, eta arretaz aztertu behar direnak:

- Komeni da kultura batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak eza-gutzea eta aztertzea. Batzuetan, unibertsaltzat jotzen dira gure kulturakoak baino ez diren zenbait balio, eta kontraesanak sortzen dira erlijioaz, sexu-berdintasunaz...
- Aurretiazko prestakuntza-maila eta gure herriko hizkuntza edo hizkuntzen ezagutza-maila bateragarriak dira gela berean. Zenbait kasutan, mailaren arabera taldeak antolatu ahal izango dira, baina posible ez bada, talde-lanaren formula bultzatu beharko da.
- Ikasleen ama-hizkuntzen heterogeneotasunak —batzuetan, gainera, bestelako egitura linguistiko eta grafiak dituztela jakinik— trataera berezia behar du, banakakoa zenbait kasutan eta barneratze-prozesuen erritmoen arabera.
- Ikastetxera modu irregularrean joatea edo taldean berandu sartzea ohikoa izaten da. Kontuan izan behar da ikasle helduen helburu nagusia lana lortzea dela, eta lortzean, baliteke ikasketak albo batera uztea.

7.2 Harrera-plana

Gure ikastetxera egiten duen lehenengo bisitako harrera edozein heldu-arentzat garrantzitsua bada, zer esanik ez heldua etorkina bada; guztiz arrotza zaion herriko erakunde ofizial batekin duen borondatezko lehenengo kontak-tua baita hori, askotan. Beharrezkoa da, hortaz, pertsona horri jarrera baikor bat erakustea eta ahalik eta ondoen orientatzea. Horregatik, garrantzitsua da hasierako prozesu horretan parte hartzen duten ikastetxeko pertsona guztiek (irakasleak eta irakasle ez direnak, bai eta zuzendaritza-taldekoak) harreraren alderdi orokor eta oinarrizkoenak ezagutzea.

Aurreko ataletan aipatutako harrera-planaren orientabideek ikasle helduentzat ere balio dute. Hala ere, adaptazio-denbora arintzeko balioko duten estrategietan sakontzea komeni da:

- Eskola-ordutegian, ikasturtearen hasiera-hasieratik, egunero ordubete finkatzea, ikasle berriei harrera egiteko. Ordubete hori, ahal denean, iritsi berriekin hizkuntza lantzeko erabil daiteke.
- Harrera egiteko irakasle bat edo bi izendatzea (eskola emango duen pertsona bera da egokiena).
- Ikastetxearen inguruko informazioa bilduko duen liburuxka bat egitea, hizkuntza batean baino gehiagotan, eta bertan ikasleak behar ditzakeen gizarte- eta laguntza-zerbitzuen informazioa ere biltzea.
- Ikasleen ama-hizkuntzetan idatzitako ongietorriko mezuak jartzea eta aniztasun kulturala adierazten duten kartelak itsastea.
- Gelen kokalekua irudi bidez eta idatziz adieraztea, herrialde berriko idazkera eta hizkuntzak ezagutzen ez dituztenentzat.
- Liburutegian material interkulturala egotea (liburuak, aldizkariak, bideoak...) eta ordutegi malguak izatea.

Gelaren harrera

Helduen gelek gaztetxoek ez dituzten ezaugarriak dituzte, hala nola maila desberdintasuna, irregularitasuna eta huts-egiteak. Gelako harrera, beraz, ikasturte hasieran eta pertsona berri bat agertzen den bakoitzean egingo da.

Ikasturte-hasierako urratsak:

- Lehenengo kontaktuak ahozkoak izatea, irakurketarekin arazoak egongo direlakoan.
- Irakasle-ikasle aurkezpenak egitea mapamundiaren laguntzarekin.
- Talde-lana hasieratik martxan jartzea, egon daitezkeen maila-desberdintasunak kontuan izanik.

Ikasturtea hasi ondoren etortzen diren ikasleak gelan integratzeko, bestelakorik ere egin daiteke:

- Ikasle berria iritsi aurretik, ikaskideei azalpenak ematea.
- Iritsi berria aurkeztea, haren sorlekua, hizkuntza, eta abar aipatuz; betiere alde positiboak eta gaitasunak ahalik eta gehien nabarmenduz.
- Iritsi berriaren hizkuntza dakitenei laguntza eskatzea.

NORK	NOREKIN	ZER
ZUZENDARITZA-TALDEAK	Itzulpen-zerbitzuarekin	Beharrezkoa denean, itzultzailea eskatzea.
ZUZENDARITZA-TALDEAK	Familiarekin eta adin nagusiko ikasleekin.	Matrikulazioa egitea. Informatzea: <ul style="list-style-type: none"> • eskola-sistemari buruz • ikastetxeko zerbitzuei buruz • ikastetxean erakutsi beharreko portaerei buruz • beste gizarte-zerbitzu batzuei buruz Ikastetxea erakustea Tutorea aurkeztea
ZUZENDARITZA-TALDEAK	Klaustroarekin / irakasleak ez diren langileekin	Etorrera eta harrera aurreikustea: prestaketa eta antolaketa. Ikasle berriari buruzko informazioa ematea
KLAUSTROAK		IIPa berrikustea ikuspegi interkulturala gehitzeko. Ikastetxea girotzea: ikastetxeko kultura guztiei erreferentzia egitea. Banakako planaren oinarriko eredu adostea.
BATZORDE PEDAGOGIKOAK edo BATZORDE DELEGATUAK		Harrera-plana egitea: nork, zer eta noiz.
TUTOREAK	Erreferentzia-taldearekin	Gelaren harrera prestatzea eta garatzea. Beste ikaskideak prestatzea prozesuan laguntza emateko: enbaxadorea bideratu. Gela antolatzea: lekua, ekintzak.

TUTOREAK	Ikasle berriarekin	Ikaslea irakasleei aurkeztea. Erreferentzia-gelan harre- ra egitea: aurkezpena eta jarduerak. Hasierako balorazioga egi- tea. Ordutegia azaltzea: hez- kuntzako interbentzio- plana.
TUTOREAK	HPI /kontsultorearekin/ orientatzailearekin	Hezkuntzako interben- tzio-plan bat egitea.
HIZKUNTZA INDARTZEKO ARAKASLEAK	Ikasle berriarekin	Haierako balorazioa egi- tea. Hizkuntza-programa indargarria egitea.

- AAVV (2003) *Perspectivas teóricas y metodológicas: lengua de acogida, educación intercultural y contextos inclusivos*. Comunidad de Madrid.
- Besalú, Xavier. (2002) *Diversidad cultural y educación*. Síntesis Educación. Madril.
- Coelho, E. (1998) *Teaching and Learning in Multicultural Schools*. Multilingual Matters Ltd. Clevedon, Ingalaterra.
- Fernández, S. et al. (1997) *Unidades didácticas y evaluación inicial en matemáticas*. Eusko Jaurlaritza. Bilbo.
- Genessee, F. (ed) (1994) *Educating Second Language Children*. Cambridge University Press. Cambridge.
- EUSKO JAURLARITZA (1992) *Diseño Curricular Base de Educación Primaria*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1998) *Educación intercultural. Orientaciones para la respuesta educativa a la diversidad étnica y cultural de la escuela*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Gasteiz.
- Montón Sales, MJ. (2003) *La integración del alumnado inmigrante en el centro escolar. Orientaciones, propuestas y experiencias*. Grao. Bartzelona.
- Otano, L. *La escolarización de la población de origen extranjero*.
- Ruiz-Bikandi, U. (edit.) (2000) *Didáctica de la segunda lengua en Educación Infantil y Primaria*. Síntesis Educación. Madril.
- Torre, M^a Jesús (2003) *Alumnado Inmigrante: Una propuesta de proyecto de acogida*. Arbela 30. zk. Barakaldo.

HARRERA-PLANAK

GENERALITAT DE CATALUNYA "Plá d'acollida del centre docent":

<http://www.gencat.es/ense/depart/acollida.htm>

— GENERALITAT VALENCIANA (2003) “ Atención educativa al alumnado inmigrante”:

<http://www.cult.gva.es/dgoiepl/Inmigracion/inicio.htm>

— GOBIERNO DE NAVARRA (2001). “Orientaciones para la escolarización del alumnado inmigrante”:

<http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/listauna.php?inmigrantes>

— GRUPO PLACOGIM (2003). “ Modelo de plan de acogida para alumnado inmigrante”:

http://www.cnice.mecd.es/interculturamet/archivos/grupotrabajo2_plandeacogida.doc

— JUNTA DE ANDALUCÍA(2001). “ Plan para la atención educativa del alumnado inmigrante en la Comunidad Autónoma Andaluza”:

<http://moderniza-dos.andaluciajunta.es/CDA/Textos/paeaicaa.pdf>

— ETORKINAK ETA HHI MINTEGIA/SEMINARIO INMIGRANTES Y CENTROS DE EPA GUIPÚZCOA (2003) .“ Etorkinekin hezkuntza praktikaren azterketa HHletan eta hobetze proposamenak”.

DURANGOKO BERRITZEGUNEA “Etorkinen seme-alaben harrera”:

http://www.berrikuntza.net/edukia/aniztasuna/etorkin/aurkibide_orokorra.es.html?etapa_id=3

RODRÍGUEZ, Y PÉREZ GARCÍA, A.E (2001). “ Plan de acogida para alumnos inmigrantes”

<http://centros4.pntic.mec.es/ies.de.tobarra/dptos/orienta/acogida.htm>

Honako hauek egindako harrera-planak:

B01 Abandoko Berritzegunea. Comisión de Interculturalidad (2003)

G01 Donostiako Berritzegunea. Comisión de Interculturalidad (2003)

G03 Eibarko Berritzegunea. Comisión de Interculturalidad (2003)

A01 Gasteizko Berritzegunea.Comisión de Interculturalidad (2001)

OROKIETA IKASTETXEKO BERRIKUNTZA PROIEKTUA (2002) “Ikasle etorkinak ikastetxean”.

10. Eranskinak

1. Zer da Hezkuntza Interkulturala?

Immigrazioak gero eta gizarte pluralago batean bizitzea dakar, hainbat hizkuntza eta kultura nahasian. Ikastetxeek, gizartearen ispilu direnez, hainbat jatorri eta kulturatako ikasleak jasotzen dituzte. Beraz, nahitaezkoa da hezkuntzaren ikuspuntu interkulturala lantzea eta errespetuzko, tolerantziazko eta elkartasuneko balioak sustatzea, jarrera arrazista eta xenofoboak saihesteko.

Ikuspegi interkulturalak, gainera, kultura guztietara (norberarenera ere bai jakina) hurbilketa kritikoa egiteko eta beste kultura eta bizimoduak ezagutzeko eta kontaktatzeko nahia pizten duen hezkuntza-eredua sustatu behar du, inork ez dezan pentsa berea besteenaren gainetik dagoenik. Azken finean, giza eskubideen eta eskubide zibil eta politikoen berdintasunean sinestea da kontua, eta edozein bazterketa-mota eragozte.

Kulturaz dugun iritziak testuinguru berean elkartzen diren kulturen arteko harremanak baldintzatuko ditu. Gure ustez, hau da kultura: gizartea osatzen duten pertsonen bereganatu duten ezagutza, sinesmen, arte, moral, eskubide, ohitura, eta gaitasun edo moldeen multzoa. Ikuspegi horretatik, balioekin, jokabide-irizpideekin eta gizalegearekin du zerikusia. Kontzeptuaren ikuspegi zabal horretatik abiatuta, ezin hitz egin daiteke kulturarik gabeko pertsonen, edozein komunitatek baitu jokamolde bat, mundu-ikuspegi bat eta munduan kokatzeko modu bat.

Hezkuntza interkulturalak kontaktuan dauden talde guztiak biltzen ditu, ez bakarrik kanpotik datozenak, eta ikastetxe guztiak hartzen ditu, ez gutxiengo etniko-kulturalak dituztenak bakarrik.

Beste kultura bat ulertu edo interpretatzeko prozesuak ezinbestez dakar hurbilekoak eta urrunekoak, antzekoak eta desberdinak, norberarenak eta besteena konparatzea. Hurbilketa hori berezitasun exotikotzat ez hartzea da garrantzitsuena, informazio eta esperientzien benetako eta errespetuzko elkartruketzat baizik. Xavier Besalúren iritziz, "Ingurune jakin batean elkartzen diren kulturen arteko harremanen aurrean hartzen den jarrera eta jokabidea da hezkuntza interkulturala"⁵.

5 Besalú, Xavier. (2002) *Diversidad cultural y educación*. Síntesis Educación. Madrid, 2002.

Elkar hobeto ezagutzea eta hobeto ulertzea izango dira hezkuntza interkulturalaren oinarriak. Horren bidez, elkarbizitzarako arauak praktikan jarriko dituen erreferentzia-ingurunea sortzea lortuko dugu, desberdintasunak errespetatuko dituen ingurunea, hain zuzen.

Ikastetxeak ingurune aproposa dira gogoeta horiek egiteko eta guztien parte-hartzea lortzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztien errespetuzko elkar onarpen bat ematen bada.

2. Ikasle etorkinen egokitze-procesua

FASEAK

Ikasle etorkinen egokitze-prozesua ez da lineala, hau da, gorabeherak izaten ditu, fase desberdinak. E. Coelho-k ⁶ lau fase ezartzen ditu, baina laurak ez dira beti gertatzen. Hala ere, komeni da ikastetxeak lau fase horiek ezagutzea eta, gertatuz gero, erantzun bat emateko prest egotea. Horretarako, detekzio- eta laguntza-neurriak prestatu behar ditu ikastetxeak ikasleei laguntza emateko: hasierako euforia neurritz hartuz, segurtasun-ezak gainditzeko estrategiak emanez, eta abar.

Ikastetxeak ezin die premia guztiei erantzun bat eman, baina ikastetxea da, beharrezkoa denean, laguntza eskuratzeko bideak ondoen ezagutzen dituen agente soziala.

- Lehenengo fasea: Iristea eta hasierako inpresioak

Lehenengo fase honetan, hasierako euforia eta gogo-berotasuna dira ezau-garri nagusiak. Herrialde berrian bizi dituzten lehenengo esperientziak oso baiko-rrak dira, eta aukera berri ugari ikusten dira. Etorkizunak ekar dakiokkeenaren aurrean urduritasuna, eta, aldi berean, errealitate berrira iristeagatik poztasun handia.

- Bigarren fasea: Kultura-talka

Kultura-talkak segurtasun-eza, larritasuna eta kezka sortzen ditu. Batzuetan hizkuntza ezezaguna da, eta inguruko jokabideak puzzle ulertezinak izan daitezke. Neska-mutikoek bakarrik eta baztertuta daudela pentsa dezakete, eta haientzat zaila izan daiteke sentitzen dutena adieraztea. Egoera horiei arretea ematen ez bazaie, larritasuna, depresioa eta jokaera oldarkorak sor daitezke.

⁶ Coelho, E. (1998) *Teaching and Learning in Multicultural Schools*. Multilingual Matters. Toronto, 1998.

- Hirugarren fasea: Susperraldia eta optimismoa

Aurreko fasea gainditu ondoren, hirugarrenean lehenengo faseko espektatibak berreskuratzen dira. Pertsonak hizkuntzaren inguruan ziurtasuna erakusten du, eta ordura arte misteriotzat jotzen zituen hainbat jokabide, ohi-tura eta kultura-ezaugarri ulergarriago egiten zaizkio. Harrera-gizartean moldatzeko gai sentitzen da.

- Laugarren fasea: Moldatzea

Alde onak baloratzen hasten da, komunitateko kide sentitzen, eta oreka emozionala lortzen du bere bi kulturetako partaide gisa.

BESTE GOGOETA BATZUK: IKASTETXEAK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Zailtasunak

Erabateko integrazioa lortzeko bidea erraztea helburu izanik, ikastetxe-ek, hezkuntza-interbentzioa planifikatzerakoan, kontuan hartu beharreko ezaugarri batzuk azpimarratzen ditu E. Coelho-k. Ikaslea egoera berrira moldatzen laguntzeko eta egoera horretan integratzeko berebiziko garrantzia duten faktoreak dira:

- Familia banatuta egotea

Gehienetan, familiak mailakatuta iristen dira harrera-gizartera. Familiako kide bat ez egoteak desoreka sor dezake, eta, azkenean iristen denean, egin beharreko berregokitzeak larritasun-egoerak sor ditzake familiako harremanak bere onera etorri arte.

- Erabakia, prestaketak eta laguntza

Familia batzuek emigratzea erabaki dute, bidaiak prestatu dute, eta harrera-gizartean dituzten laguntzen berri izan dute, beren kulturako beste kide batzuek lehenago egin izan dutelako. Horiek zorionekoak dira. Zoritxarrez, gehiengoaren kasua ez da hori izaten, eta erabaki hori hartzea ez

dagokie umeei, gaztetxoei eta, zenbait kulturatan, ezta emakume gazteei ere. Giza talde horietan, erabakimenik ez duten horietan alegia, askotan inpotentzia- eta desegokitasun-sentimendua garatzen da.

- Ingurumeneko faktoreak

Hiri handiak dira etorkin gehien jasotzen dituztenak. Baina, etorkin horietako asko nekazari-mundutik datoz, eta ez dute hiriko bizimodua ezagutzen. Hiriak segurtasun-eza sortzen die, eta bizilekuak, normalean pisu txikiak, bakardadea eta isolamendua. Tarteka, bizileku hori jende askorekin eta denbora luzean partekatzea behartuta daude. Horregatik, ingurukoekin arazoak sortzen dira, bai eta familiako kideekin ere.

- Isolamendu kulturala

Eguneroko zereginak eta hizkuntza berrian duten erraztasun-ezak harrera-gizartearen kulturara hurbiltzea eragozten die helduei. Elkarrekintzarako aukera gutxi izaten dute, eta komunikazio-premiak murriztu egiten dira. Isolamendu horrek, askotan, seme-alabengan du eragina: edo familia osoak pairatzen du aipatutako isolamendua, edo jautzia sortzen da heldu isolatuen eta mundu berrian parte hartzeko gogotsuago dabilzan gazteen artean.

- Harrera-gizarteko hizkuntzetan duten gaitasuna

Harrera-gizarteko hizkuntza dakiten ikasleek edota jatorrizkoa antzekoa dutenek errazagoa dute integratzea.

- Ordura arteko eskolatzeak

Aurretik arrakastaz eskolatutako ikasleek, eta etenik izan ez dutenek bide handia dute egina: badakite eskolan egotea zer den, etxeko lanak eta eskatzen diren jokabideak zein diren, eta berehala egokituko dute beren aurreko esperientzia beste egoera berri honetara. Hala ere, badira ikasle batzuk eskolatzea ia ezinezkoa egiten den herrialdeetatik datozenak; arrazoiak asko dira: azpiegitura falta, familiaren premiak, gerrak, distantziak, eta abar.

- Eskola-kultura

Eskola guztia erlazionatua dagoen era, eskolako agente bakoitzarengandik zer espero daitekeen, curriculum, balioak... horiek guztiak azaldu beharreko gaiak dira. Harremanak guztiz aldatzen dira herrialde batetik bestera eta eskola-kulturak ere bai. Baita elkarren ondoko herrien artean ere.

- Identitatea

Identitatea eraikitzea oinarrizkoa da pertsonaren formazioan. Baina, askotan, ikasleek ez dute euren burua islatuta ikusten harrera-gizarteko jardunbideetan. Hori oso txarra da, ikasleak ez baitu aurkitzen bere identitatea eraikitzeko eredurik.

Askotan ikasleek izena aldatzen dute edota gizarte berriaren hizkuntzara egokitzen dute izena.

Hala ere, askotan moldatze eta aldaketa horiek kostu emozional handia izaten dute.

- Egoera sozioekonomikoa

Etorkin kualifikatu askok ezin dute beren esparruko lanik aurkitu, eta soldata eskasagoko beste lan batzuekin konformatu behar izaten dute. Horren arrazoiak hauek dira:

1. Hizkuntza-gaitasunik ez izatea.
2. Ikasketa eta tituluen konbalidazioa lortu ez izana.
3. Diskriminazioa.

Egoera horrek autoestimu-arazoak ekar ditzake, eta bere inguruko artean gutxiesteko sentimendua sor dezake.

- Familiako botere-egituraren aldaketak

Harrera-gizarteko lan-merkatuaren premiak direla eta, baliteke jatorriko herrialdean familiako kide bakoitzari esleitutako rol tradizionalak aldatu behar izatea, etxeko lanen banaketan, estatusen eta botere-mailan. Egoera horrek

gaizkiulertuak —eta bortizkeria ere bai— sor ditzake familiaren barruan. Seme-alaben hezkuntzari dagokionez, baliteke jatorriko gizarteko hainbat jardunbide harrera-gizartean onartezinak izatea. Horren ondorioz, gurasoak armarik gabe gelditzen dira, eta etxean arazoak sor daitezke.

- Eskolaren eta familiaren arteko gatazka kulturalak

Zenbaitetan, ikasleak bere jatorriko kulturarekin bat ez datozen balio batzuen eragina izan dezake. Orduan, familiek ez diete seme-alabei, eta batez ere alabei, iraingarritzat jotzen dituzten jarduera mistoetan parte hartzeko baimenik ematen (kiroletan, sexu-hezkuntzan...).

Umeez harrera-gizarteko hizkuntzan zenbat eta erraztasun handiagoa hartu, orduan eta distantzia handiagoa ezartzen da erraztasun hori lortu ez duten helduekiko. Horrez gain, etxeko hizkuntzan gaitasuna galduz badoaz, azkenean familiarekin berarekin komunikazio-arazoak ere sor daitezke.

- Gurasoek eskolan parte-hartzea

Gurasoen parte-hartzeak berebiziko garrantzia du, hezkuntzan arrakasta lortzeko. Baina parte-hartze hori zaila izan ohi da, hainbat arrazoiengatik: komunikazioa eragozten duten adierazpen-arazoengatik, zenbait helduren eskola-esperientzia txarrarengatik (eskolara lasaitasunez hurbiltzea eragozten baitie), eta zenbait kulturatan interbentzio-eremuak oso ondo bereizita egoiteagatik. Azken horietan, eskolaren ardura izaten da irakaskuntza, eta familiaren ardura beste guztia.

Baliabideak

Adaptazio-prozesuan eragina izan dezaketen faktore horiez gain, badira familia etorkinetan ezaugarri asko oso tinkoak, eta ikaslearen oinarri direnak. Ikastetxeak ezaugarri horiek erabiltzea edo indartzea garrantzitsua izan daiteke prozesua arrakastaz osatzeko.

Oro har, pertsona adoretu eta ausartak direla pentsatu ohi da, eman duten urratsak ederki frogatu baitu hori, eta, urrats horren ondorioz, bestee-kiko harremanetan erantzukizun handiko talde bateko partaide sentitzen dira.

Askotan, beren kulturaren kontzientzia handia izaten dute, eta, horregatik, nortasun kultural handia. Horrek, nolabait, harrera-herriaren kulturaren ezaugarriak balioesten laguntzen die.

Familiek, maiz, egoera berrira egokitzeko joera ona erakusten dute. Ezaugarri horrek badu zerikusirik izan duten aldaketa-esperientziarekin. Hizkuntza ikasteko irrikan daude, eta kultura berriaren parte sentitu nahi dute. Ez die esperientzia berriei beldurrik, eta, hortaz, hezkuntza-proposamenetan parte hartzeari ere ez.

Familia gehienek itxaropen handiak dituzte jarriak hezkuntzan. Gizartean integratzeko tresna izatea espero dute, seme-alabei bizitza hobea eskuratzen lagunduko diena. Balio horiek transmititu egiten dira, eta askotan, ikasle etorkinek bertakoak baino errespetu handiagoz, motibatuago eta langileago jokatzen dute.

Ikasle askoren kulturaren, seme-alabak familia bereko belaunaldi bat baino gehiagoren artean hazten dira, eta, zenbaitetan, senitarteko horiek izango dira tutore-lana egingo dutenak, gurasoak ez badaude. Egoera horrek familiaren barruan eginbeharrak eta erantzukizunak hartzera bultzatzen ditu, eta, ondorioz, bertako ikasleak baino autonomoagoak eta arduratsuagoak izaten dira.

Hainbatetan, harrera-gizartearekiko sentitzen duten esker ona hain da handia, ezen bertakoek baino errespetu handiagoa erakusten dieten legeei eta erantzukizun zibilei.

3. Ikasle enbaxadoreak (Lagun berriak)

EZAUGARRIAK

Ikasle enbaxadorea erreferentzia-taldeko kide bat da, gelako ordezkari izango dena ikasle etorkinaren aurrean. Haren lana etorri berriari ikastetxean eta taldean harrera erraztea izango da.

Enbaxadoreak boluntarioen artean hautatu behar dira, eta komeni da taldeko guztiak noizbait izatea enbaxadore.

Hasiera batean, ikasle berriari ongietorria egitea eta ikastetxea erakustea izango da haren ardura, batik bat erreferentzia-gela eta hizkuntza indartzeko gela.

Garrantzitsua da pertsona hori ikastetxearen aniztasun kulturalaren ordezkari izatea, eta, zenbaitetan, interesgarria izan daiteke etorri berriaren hizkuntza jakitea eta harrera-gizartearen hizkuntzan ere erraztasuna izatea.

Batzuetan, sexu berekoa izatea ere garrantzitsua izan daiteke, etorri berriaren eta enbaxadorearen arteko harremana errazagoa izateko. Izan ere, askotan, adinak edo erlijioak zaildu egiten du sexu desberdinekoen arteko harremana hurbila izatea.

Ikasle enbaxadoreak egin beharreko lanak prestakuntza eskatzen du. Tutoretza-saioetan, iritsi berriari buruzko gai garrantzitsu eta premiazkoenak izan daitezkeenak aztertzea komeni da.

Enbaxadore izan daitezkeen boluntario-taldearen inplikazioa lortzeko eta lana antolatzeko ideia batzuk hauek dira:

- Iritsi berriak hasierako egunetan sentituko duenaz eztabaidatzea, beste batzuen esperientzietan oinarrituz.
- Iritsi berriaren lekuan baleude, besteek zertan laguntzea gustatuko litzaiekeen aztertzea.
- Zereginen zerrenda bat egitea, eta erantzukizunak banatzea.

Harreran parte hartuko duen talde osoak denbora labur batez zeregin horiek denak egitea komeni da. Egokia da txandaka egitea, mendekotasun-egoerak saihesteko eta autonomia sustatzeko.

Egiten den lanak ikastetxeko komunitate osoaren oniritzia jaso behar du, eta gogoeta egitera bultzatu behar du: laguntza, kooperazioa eta antzeko balioez, beste baten lekuan jartzeaz, eta harreraz, hori eginez, denok ikasten baitugu. Oniritzi hori adierazteko modu asko daude. Adibidez:

- Parte hartu dutenen gurasoei gutuna bidaltzea, egin duten lana azalduz, ikasi dutena eta beste ikasleengan izan duen ondorioa azpimarratuz eta haie parte-hartzea eskertuz.
- Zuzendaritzak sinatutako egiaztagiria ematea.
- Ikastetxeko leku publiko batean, zuzendaritzak haien lana goratzea.
- Ikastetxean enbaxadore-lanetan ari direnean, bereizgarriren bat eramatea (intsignia, eranskailua...).

ZEREGINAK

Ikasle enbaxadorearen lana errazteko zeregin batzuk:

1. Iritsi berriari komunak, eta sinbolo eta ikur oinarritzkoenak erakustea; komunera joateko baimena nola eskatu behar den azaltzea.
2. Iritsi berriarekin batera ikastetxean zehar ibiltzea, zuzendaritza, jantokia, gimnasioa, patioa eta abar non dauden erakusteko.
3. Iritsi berria jolas-garaian taldean onartzea, jolasak azalduz eta parte hartzera bultzatuz.
4. Iritsi berriarekin batera bazkaltzea hasierako egunetan.
5. Iritsi berriaren ondoan esertzea hasierako egunetan, gelako ohituretan laguntzeko.
6. Behar duenean, irakasleei laguntza eskatzen laguntzea.
7. Iritsi berriak zuzendariaren, irakasle tutorearen, hizkuntza indartzeko irakaslearen eta abarren izenak ezagutzen dituela ziurtatzea.

4. Hasierako baloracioa egiteko adierazleak

HIZKUNTZA: EUSKARA/GAZTELANIA

ULERMENA ETA MINTZAMENA

EDUKI-BLOKEAK	ADIERAZLEAK	BAI	EZ
ULERMENA	<p>Berari buruzko galdera errazak erantzuten ditu.</p> <p>Argibide errazak jarraitzen ditu, ahozko erantzunik eman gabe.</p> <p>Hurbileko gaiei buruzko elkarrizketak ulertzen ditu: eskola, lagunak, familia...</p> <p>Testu erraz batean adierazten dena ulertzen du.</p> <p>Arretaz entzuten du jardueran interesa erakutsiz.</p>		
MINTZAMENA	<p>Ahoz, adierazten ditu bere beharrak eta nahiak, ulertarazteko adina.</p> <p>Oinarrizko hiztegia erabiltzen du: izen ezagunak, trenak eta ekintzak.</p> <p>Beste bati buruzko informazio sinplea ematen du.</p> <p>Bere esperientzien berri ematen du, elkarrizketa bideratzen duen heldu baten laguntzarekin.</p>		
ESTRATEGIAK	<p>Ez duela ulertzen adierazten du, keinu bidez azalpenak edo errepikatzea eskatuz.</p>		

IRAKURMENA ETA IDAZMENA

EDUKI-BLOKEAK	ADIERAZLEAK	BAI	EZ
IRAKURMENA	<p>Idazkeraren norabidea ikasia du.</p> <p>Alfabeto idatziaren grafiak ikasiak ditu</p> <p>Erritmo, doinu eta ahoskera egokiz irakurtzen du.</p> <p>Maila arrunteko testu idatziak ulertzen ditu: oharrak, istorioak...</p> <p>Testu bateko oinarrizko ideiak eta informazio garrantzitsua bereizten ditu.</p> <p>Testu-motak bereizten ditu: berria, ipuina, oharra...</p>		

IDAZMENA	<p>Alfabeto-grafiak idazten ditu letra larriz eta xehez.</p> <p>Idazteko ohitura du: behar bezala esertzen da eta erritmo onean idazten du.</p> <p>Idaztearen konbentzioak ezagutu eta zaintzen ditu (oinarrizko ortografia, puntuazioa, letra larriz noiz idatzi...)</p> <p>Helburu bat baino gehiagoko testu sinpleak idazteko gai da: kontatu, eskatu, gogoratu...</p>		
ESTRATEGIAK	<p>Ez duela ulertzen adierazten du, keinu bidez azalpenak edo errepikatzea eskatuz.</p> <p>Zailtasunak dituenean galdetu egiten du.</p> <p>Idatzi aurretik gogoeta egiten du.</p> <p>Irudiak erabiltzen ditu testua ulertzeko.</p>		

MATEMÁTIKAK

EDUKI-BLOKEAK	ADIERAZLEAK	BAI	EZ
ARITMETIKA	<p>Zenbakiak irakurri, idatzi eta ordenatzen ditu</p> <p>-(e)raino</p> <p>Ohiko zeinu matematikoak zein diren badaki.</p> <p>Bere zikloari dagozkion eragiketak egiten ditu.</p> <p>Eragiketa errazak egiten ditu buruz.</p> <p>Problemen enuntziatuak ulertzen ditu.</p>		
NEURRIAK	<p>Gorputz-neurriak intuitiboki ezagutzen ditu: arra bete, oina...</p> <p>Neurri-unitate oinarritzkoenak ezagutzen ditu:</p> <p>Luzera</p> <p>Edukiera</p> <p>Masa</p> <p>Denbora</p> <p>Estimazioak egiten ditu eta neurri egokia hautatzen du.</p> <p>Neurri-unitateak erabiltzen ditu.</p> <p>Neurrien testuinguruan problemak ebazten ditu.</p>		
GEOMETRIA	<p>Perspektibadun marrazkiak egiten ditu.</p> <p>Ohiko forma geometrikoak ezagutzen ditu.</p> <p>Objektu batek espazioan duen posizioa adierazten du.</p> <p>Leku ezagun bateko plano eta krokisak interpretatzen ditu.</p>		
INFORMA-ZIOAREN TRATAMENDUA	<p>Taula eta grafiko bidez hainbat informazio interpretatzeko gai da.</p>		

ADAPTAZIOA. SOZIALIZAZIOA

ADIERAZLEAK	BAI	EZ
<p>Ikastetxea ezagutzen du eta arazorik gabe ibiltzen da ikastetxean zehar.</p> <p>Irakasleen egitekoetara moldatzen ari da.</p> <p>Jatorriko hizkuntza eta kultura naturaltasunez aipatzen ditu.</p> <p>Premiak ikaskideei eta irakasleei adierazten dizkie.</p> <p>Elkarrekintza sozialei zuzenean erantzuten hasten da.</p> <p>Eskolako lanetan beste batzuekin aritzen da.</p> <p>Ikaskideekin eta irakasle batzuekin harremanak ditu.</p> <p>Eskolako ohiturak jarraitzen ditu eta jokaera-espektatiben barruan dago.</p> <p>Nabari da familiako hizkuntzan eta kulturaren oinarritzen dela pentsatzeko, komunikatzeko eta esperientzia berriak bereganatzeko.</p>		

5. Ikaslearen Oinarrizko Informazioa

1. DATU PERTSONALAK

Ikaslearen izena	
Ikaslearen abizenak	
Jaioteguna	Herrialdera heldu zen data
Jatorria. Estatua	Hiria/herria
Ama hizkuntza	
Helbidea	
Telefonoa	

2. FAMILIAREN DATUAK

Aitaren izena	Jatorria	Hizkuntza
Aitaren izena	Jatorria	Hizkuntza
Anai-arrebarik?		
Beste familiakiderik etxean?		
Guraso eta ikastetxearen arteko harremanetarako hizkuntza:		

3.- AURREKO ESKOLATZEA

Ikasmaila:	Zenbat urte eskolan?	Etenik?
Ikastetxea eta herria:		
Eskolako hizkuntza:		
Beste eskola datuak: (dokumentazioa...)		

6. HHIeko IKASLEAK

Izen-abizenak										
Jaioteguna				Sexua						
Jaioterria				Herria						
Herrialdea				Herria						
Udalerrian erroldatua				Bai	Ez	Ez daki				
Ezagutzen dituen hizkuntzak:			1 ^a							
familiako hizkuntza,...			2 ^a							
Beste hizkuntza batzuk			3 ^a							
Helbidea										
Lan-jarduera			Bai		Ez					
Ordutegia			Goirez	Arratsaldez	Gaez					
Ikastetxearen berri eman diona:			Beste ikasle bat		Udala	Gurutze Gorria				
			Caritas		GKE	SOS Arrazakerria				
			Egunkariak		Beste batzuk (zehaztu)					
Jatorriko herriko prestakuntza			Alfabetizatua		Lehen Hezkuntza					
					Bigarren Hezkuntza					
					Unibertsitatea					
			Alfabetatugabea							
Erkidegoko hizkuntza ofizialen ezagutza (E= ezer ez, G= gutxi, N= Nahiko)					Euskara		Gaztelania			
			Ulertzen du							
			Hitz egiten du							
			Irakurtzen du							
			Idazten du							
Eskatutako ikastaroan duen interesa: zertako ikasi hizkuntza:			lan egiteko							
			Gidatzeko baimena lortzeko							
			Integrazio soziala lortzeko							
			Titulazioa lortzeko							
			Beste hainbatetarako (zehaztu)							
Ohar interesgarriak:										

7. Ikaslearen Banakako Plana

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	BILERAEN DATA
IKASTETXEA	HERRIA

1. EGOKITZAPENA (integrazioa bultzatzeko)

Edukiak (Zer landu)	Eremuak (Non)	Arduraduna (Nork)	Denbora-epea (Noiz)	Eskuhartzeko jarraibideak

2. HIZKUNTZA

AHOZKO HIZKUNTZA

Edukiak (ZER landu)	Eremuak (Non) Arduraduna (Nork)	Denbora-epea	Eskuhartzeko jarraibideak

IDATZIZKO HIZKUNTZA

Edukiak (ZER landu)	Eremuak (Non) Arduraduna (Nork)	Denbora-epea	Eskuhartzeko jarraibideak

ARLOA:

Edukiak (ZER landu)	Eremuak (Non) Arduraduna (Nork)	Denbora-epea	Eskuhartzeko jarraibideak

8. Norbanakako planearen ebaluazioa

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	BILEAREN DATA
IKASTETXEA	HERRIA
Bildutakoak:	

	Lortutako helburuak	Hobertzeko arloak	Erabakiak
EGOKITZAPENA			
HIZKUNTZA			
BESTE ARLOAK			

9. Tutorearen Jarduerak

Ikaslearen izen-abizenak:

Ikastetxera heldu zen data:

Ikastaldea:

Lagun berriarren izena:

Jasoko dituen laguntzak:

Laguntzen ordutegia:

Materialak:

Tutorea eta beste irakasleen arteko koordinazio bilerak:

NOR

NOIZ